

1-BALIO PROPOSAMENA

Gure helburua, jendeari jaten emateaz gain, haien elikatzeko ohiturak aldatzea da, zabor-jana eta osasuntsua ez den janariaren kopurua murriztuz eta osasunerako onak diren elikagaien kantitatea handituz. Erakutsi nahi dugu osasuntsuki jan dezaketela eta, aldi berean, bazkariez gozatu. Beraz, gure eskaintzaren balioa kualitatiboa da, gure produktuekin osasun eta gozamen sentrazioa hedatu nahi dugulako, eco-friendly oinarria beti aintzat hartuz.

Gure eskaintza bereiztu egiten da, alde batetik, eco-friendly eta erabat osasuntsua den produktua saltzen dugulako, publiko zabal bati bideratuta dagoena, hala nola beganoentzat eta zeliakoentzat. Beste alde batetik, kontsumitzaileari hurbiltzen gara, zerbitzu gehigarri bat izateaz gain, bezeroak leialtzeko erreminta bat dena, eskuragarritasuna eta erosotasuna garrantzi handia baitute kontsumitzailearentzat.



Horrez gain, gainerako lehiakideengandik bereiz gaitzke beste oinarri edo balio batzuei esker; adibidez, elikadura osasuntsu bat izateko lana errazten diegulako, arrazoizko prezio baten truke produktu naturalak eskaintzen dizkiegulako gustu eta kondizio askotariko publiko bati.

COMIDA RÁPIDA		COMIDA CASERA	
1089 KCal 31g PROTEÍNAS 41g GRASAS	152g CARBOHIDRATOS 1378mg SODIO	502 KCal 46g PROTEÍNAS	12g GRASAS 59g CARBOHIDRATOS 430mg SODIO

